



Fagor: goreneko Teknologia gizatzen.




Kontrol Numerikoak.




TB hargailuentzat ekipoa.



Produktzio automatizaziorako lineak.



Autoarentzat osagarriak.



Elektrogailuak.

35 urte haundi aurrerapenari
arnasa ematen.

Fagor-en seme zaharrena
petroliozko estufa bat izan zen.

Gaur egun museorako balio
duen aparailu arrunt honek
funtsezko bi helburu bete zituen:
familiarako bero gozoa sortu eta
bere egileei enpresa-indarra eman.

Lurralde hontako industria
talderik indartsuena Fagor da.
Eta berak sortzen dituen
produktuak guztiz ospetsuak dira
nonahi ere, eta munduko bost
lurraldetan saltzen dira.

Alabaina, bada zerbait aldatzen
ez dena Fagor-en: aurrerapen
teknologikoak pertsonen bizitza
maila hobetzen erabiltzeko duen
gogo osoa, alegia.

Eta horretarako ikuspegi
humanista bati eusten dio ikerketa
zientifikoa eta bere iharduera
enpresarial guztian.

Eta gainera teknologia aldetik
etorkizun fantastiko sendatzen ari da.

130 edo gehiago produktu
egiten ditu Fagor-ek,
34 langintza desberdinetan.
Bere 13 enpresatan 8.000
lankide ari dira buru-bihotz.
110.000 miloi pezeta eta
gehiagoren salmentak egiten
ditu urtean % 30 atzerrira
salduz.



FAGOR

Teknologikoki fantastikoa

Ongi etorriak!

Ongi etorriak Prentsa lokalari buruzko Lehen Ihardunaldietara!

Azken urteotan gure artean indartsu loratu den prentsa lokalaren fenomenoak uzta emankorra ere eman du dagoeneko: Ihardunaldi hauek dira horren lekuko eta ispilu.

Ezin uka liluragarria ez denik informazio lokalaren iharduera hau. Kable bidezko telebista-kate ahaltsuek abiadura-marka guztiak hautsi eta munduaren beste bazterreko albisterik txikiena ere geure sukaldean sartzan diguten bitartean, sarritan ez dugu jakiten kilometro erdira dagoen auzuneko berri. Egia da egunkari salduen izaten dituztela orrialde batzuk herrietako kronikez beteak, baina erdaraz gehienek, eta edonola ere ez dute aukera gehiegirik ematen jendearen iritzia ezagutzeko, elkarrizketa edo erreportaia zabalik egiteko, herriko pertsona eta erakundeen berri sakon samar emateko, etab. Alegia, badago hor prentsa lokalak bakarrik bete dezakeen —eta bete behar lukeen— esparru zabala.


Beraz, zeregin garrantzitsua dago, bai kazetaritza edo informazioaren ikuspegi hutsetik, baita euskararen erabilpena areagotzeko alderditik begiratuta ere.

Gaur egungo munduan, informazioa botere dela esan ohi da, eta horrela izango da seguraski, majo saiatzen bait dira kontrolatzen mota guztietako agintariak (politikoak, ekonomikoak, kulturalak...). Ahalik eta informaziorik gehien ahal den jenderik gehienengana helerazten saiatzen den neurrian, ezin uka prentsa lokala ere, bere mailan noski, demokrazia osasuntzen eta benetakotzen ari dela.


Ildo beretik, prentsa lokalak plataforma ezin hobea eskain dezake gure herria sarri askotan hain traumatikoki zatikatzen duten pentsaera eta jokabide kontrajarriak plazaratzeko eta sektore ezberdinak elkarrizketa-bidean jartzeko; hau, hain zaila den orekari eusten asmatzen bada, noski.

Ezin dugu geure buruaren garrantzia gehiegi baloratu, baina bere mailan —maila apalean, nahi bada— prentsa lokala baliabide inportantea da gizarte-bizitzarako. Horregatik, hain zuzen, ez da harrizkoa modu batera edo bestera prentsa lokalari laguntzen diotenen ere eskua gehiegitxo sartzeko tentazioa, komunikabide hauek kontrolatzeko gosea eta egarria, izatea; edo ezin dutela eta etsipenak jotzen baditu, orduan laguntzak ukatu nahi izatea. Asmatuko al dugu denok ere tentazioak baztertu, arriskuak gainditu eta aurrera egiten.

Ez dago zalantzarik; makina bat neke eta arazo izaten da aldizkari lokalak sortzeko orduan, baita gero denboraren gurpilean iraunerazteko ere. Baina honelako esperientzietan, bakarrik ez gabiltzala jakiteak ere adorea eta kemena ematen du. Horregatik da garrantzitsua Ihardunaldi hauetan hainbeste proiektu ezberdinetako ordezkariak elkartzea, elkarren berri izateko, elkarrengandik ikasteko eta elkarri laguntzeko. Beraz, izan ongi etorriak Ihardunaldi hauetara! Eta ongi etorriak bitez gero poliki-poliki prentsa lokalaren mundura hurbiduko diren proiektu berri guztiak ere!



IÑAKI MENDIGUREN



**EUSKARA,
DENONA**



Nafarroako
Gobernua

EUSKARAREN
ERAGINA
NAFARROAKO
GAZTELERAN
ERAKUSKETA




EXPOSICION

EL VASCUENCE

EN EL CASTELLANO

DE NAVARRA

Euskararen eragina Nafarroako Gazteleran erakusketak badu berezitasun bat: Euskararen aztarnak azaldu nahi ditu Nafarroako gazteleran. Gure arbasoen iragan historikoa gogorazteko bide bat da, euskara gaur egun baino askoz lurralde zabalagoan hitzegiten zenekoa. Erakusketari esker, hizkuntz altxor aberatsa aurki daiteke, eta hori ongi ulertuz, nafar kultura hobeki ezagutzeko aukera eman dezake.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetak:

Amara Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA
taldea, Xabin Arieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esaneren eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Prentsa lokala gurean

Gaia eman didate eta horri atxikituko natzaio hurrengo lerroetan, izan ere egiten ari diren prentsa lokalari buruzko lehen ihardunaldietan ale berezia argitaratu-tako bait du Arrasate Press-ek eta arlo horretan izan dudana esperientzia txikia azaltzea eskatu zait. Beraz, gaurkoan ez dago nire barne hausnarketan adarretatik ibiltzerik eta irakurleak badaki aurretik nondik nora joko dudana. Ez dela abantaila txikia, ez alafede!


Egin esan, nire lehen idazlanak bota nituenean ez nuen prentsa lokala kontuan izan. Bi arrazoi nagusirengatik: helburu garaiagoak ei nituelako (pretentzioso alena!) alde batetik eta, bigarrenez...euskal prentsa lokalaren arrastorik ez zegoelako. Ongi oroitzen dut zertaz zihoan Zeruko Argian, 1974ean argitaratu zidaten lehen artikuluxka, aitortu behar dut, segituan erakarri ninduen euskal astekari bakarra genuen hartan, Arrasateko albisteak plazaratzeko aukerak.

Eta lanari ekin nion, erdi izkutuan -inork gutxi bait zekien zein zen Mendiagaren izernordeaz idazten zuena- eta erdi beldurrez, artean euskaraz izkiriak ezusteko desatseginen bat ekar bait zezakeen. Arrasateko uneko euskal kronista bilakatu nintzen (hori duk haundipuzkeria!), aurretik Pedro Ignazio Barrutia («Gabonetakø Ikuskizuna»), Sebero Altube («Laztatxu eta Betargi»), Iokin Zaitegi («Euskal Gogoa») eta - oker ez banago- Bernabe Berezi-bar zenak ere Zeruko Argian bertan egin zuten bezalaxe.

Astekari mikelatxagatar hartatik (zuzendaria genuen Mikel Atxagaren

sinonimoa irekitasuna da), bere asmo orijinala inoiz gorpuztu ahal izan ez zuen proiektu kilikagarri batera igaro nintzen. Deia egunkarira bildu ginen zenbait lagun, Martin Ugaldere zuzendaritzapean, eguneroko gure lankidetzaz euskal prentsa zitekeena-ren enpresari ekiteko. Usteak erdi ustel, laster egin bait zuen porrot ideia harek, erderazko egunkariaren mesedetan. Dena den, ehundaka kontu ditzaket lankidetzari uko egin arte bota nituen artikulua, gehienak Arrasateko ohizko gertaerei zuzenduta.

Euskararen prezentzia komunikabideetan gero eta normalagoa egiten ari zen arren, prentsa lokalaren jaiotza ikusteke genuen. Eta Arrasate, nola eredu tinko bezain irizarlearen sorgunerik adierazgarrienetakoa den, hementxe eman behar izan zitzaion hasiera egun -zorionez- Euskal Herri osora hedatzen ari den mugimenduari: euskal prentsa lokalari, alegia. Zorte onekoa naizenez gero, Arrasate Press-en lehenengo zenbakitik erabili ahal izan ditut bere orrialdeak nireak argitaratzeko. Eta, zinez diot, inon baino gustorago aurkitu naiz gaurdainoko lankidetzan. Irakurleek zer dioten ezagutu nahi nuke.



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Konpainia on Baten Balioa


Bizitzan zehar lasai ibiltzeko segurura jo behar da. Konfiantza osoa emango dizun norbait behar da ondoan, indartsua, handia. Hitz batean esanda: LAGUN ARO

Lasaitasunaren balioa.


 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK




Nolako etorkizuna ikusten diozu herri mailako prentsa-ri?




Javier Marcos
TU Lankidekoa
Etorkizun ona. Gertatu dena ikustea besterik ez dago. Lehenengo Arrasate Press, gero ATB, zerbait entzun da irrati bati buruz. Ni behintzat baikor nago.




Silvia Alonso
Eperbide aldizkarikoa
Oso etorkizun ona ikusten diot.



Antton Aranburu
Euskadi Irratikoa
Euskararentzat prentsa lokala egotea beharrezkoa da. Prentsa nazionalaren osagarria izan beharko litzateke, gure kasuan Egunkariarekin.



Alex Piko
Akatz aldizkarikoa
Etorkizun ona, ez? Gaurkoa ikusi eta gero, etorkizun handia duela uste dut.




Fernando Muniozguren
Eta Kitto aldizkarikoa
Etorkizun ona eta garrantzitsua. Hasieran egon arren, tratamendua zaindu behar dugula uste dut.



Maria Soledad Del Monte
Missatge Cardedeu aldizkarikoa
Primerako etorkizuna. Prentsa lokalean lan egiten duen jendeak diruagatik ez duelako egiten.



Jon Unanue
Andoaindarra
Oso etorkizun handia ikusten diot. Ni neu gisa bereko proiektu bat jartzeko asmotan nago. Etorkizun handia ikusten diodalako etorri naiz.




Estepan Plazaola
Berrigara aldizkarikoa
Diru aldetik euskarazko prentsa lokalak zaila du. Baina herri mailako informazioa emanez gero, ezinbestekoa ikusten dut.



Francesc Pou
Barret Picat aldizkarikoa
Prentsa lokala izango da etorkizunean gehien zabalduko dena. Etorkizun handia ikusten diot.



Lorea Etxeandia
Leketioko Udalatik-ekoa
Etorkizun ezin hobea dauka. Orain hasieran gaude eta indartzen doa. Gazteek badute aurrera ateratzeko ilusiorik.



Gotzon Gomez
Durango Swing aldizkarikoa
Etorkizun izugarria. Oraintxe hasi dira zabaltzen eta jendeak eskatzen ditu. Herriko gauzak agertzen direlako.

“Aldizkarien federakuntza posible bateaz ere hitz egin izan da. Aldizkarien elkartasun horrekin kostuak murriztu, lana erreztu, harremanak sendotu, elkarrengandik ikasi eta publikitate ere hel dakiguke”.

(Miguel Angel Elkorobereizabar, *Berrigara* aldizkariko zuzendaria)

“Galdera hau egiten diogu geure buruari: hain xumea eta ballabide gutxiko La Fura moduko publikazio bat erreferentzi gune izatera hel badaiteke, zabalkunde eta kazetaritzaren ikerlarietazako nahiz zenbait profesionalentzako, eskualdeko prentsa delatutako prentsa honen panoramak oraindik ere ez gaitu asebetetzen. Eta horrek, egia esan, erabat tristatzen gaituela aitortu behar dugu”.

(Alfons Udina, Kataluniako *La Fura* aldizkariko zuzendaria)

“Informazio orokorreko prentsa gehien bat espainieraz idatzita dagoen bitartean, eskualdeko prentsan katalana da jaun eta jabe. Espainieraz bakarrik idatzitako eskualdeko publikazio bat bera ere ez dugu ezagutzen”.

(Toni Sirera, *Ressò* aldizkariko zuzendaria)

“Leo Bogart-ek, Iparramerikar prentsari buruz, ez du zalantzarik baiesteko, aldizkarien independentzia duela ehun urtetik dirusarrera-iturri nagusiena duen publikitateari esker eman dela”.

(Matias Escribano *La Ribera Navarra* aldizkariko zuzendaria)

“Komunikazioaren teknologien bidez modu asko dago jendeak, hauteskunde-kolegio batean inoiz sartu barik, bere irizkiak emateko.

Arasateko kasua benetan miresgarria da. Katalunian behintzat ez dut horrelako kasurik ezagutu, herri-aldizkarien finantziatzaleari dagokionez”.

(Juan Maciá, kazetari eta irakaslea)

“EL 9 NOU jaio zenean, Inork ere ez zuen uste egunen batean asteroko lau argitalpen izango genuenik eta Premsa d'Osona enpresa argitaratzaileak urteko hirurehun milioi pezetatik gorako aurrekontua izango lukeenik.”

(Jordi Motet, *El 9 Nou* egunkariko zuzendaria)

“Elkartetik garrantzitsua dena ez da, hain zuzen ere, astekarietako bakoitzaren zabalkunde, batura guztira baino, Bartzelonatik saltzen duguna bilduma osoa bait da, tarifa bateratuaren bidez.

Generalitat-eko Lehendakari Salletik, pixkanaka-pixkanaka, zenbatekoaren igoera lortzen joan da, kanpaina zehatzen fruitua.

Katalunian ere eskualdeko prentsaren garapena azken hamar urteotan eman da, Elkartearen bizi-ekintzaren batera eman dena.

Duela hilabete batzuk, Generalitat-eko lehendakariak, jende aurrean, eskualdeko prentsa herrialdea elkar atxekitzeko elementua dela aitortu zuen, eta Kataluniako Legebiltzarrak, aho batez, ezatabaldatau eta ontzat eman du gure prentsaren sensibilizazio haundiagoa, eta horrela dirulaguntza haundiagoak izatea espero dugu”.

(Jordi Vallmajó, Kataluniako Prentsa Komarkaleko Elkarteo Lehendakaria)

“Herrietako informazioa da irakurleagoak gehien estimatzen duena. Kontuan hartu behar da, gure eskualdean behintzat horrela baita, herrietako informazioa ez dela bertze egunkari eta mediotan apenas agertzen. Guk informazio hori hamabortzeko eskeintzean, bertako irakurlearen behar hori ase egiten dugu, eta gainera, informazio horrek, eskualde osoko herrien arteko harremanak trinkotu egin ditu nabarmenki. Herri guzietan euren “eskaparatea” aurkitu dute Ttipi-Ttapan”.

(Jose Manuel Irigoien, *Tippi-Tappa* aldizkariko kazetariak)

“Aldizkari batera lehenengo agertu nintzenean, duela hogeitamabost urte, gertakari saileko erredaktore-buru zahar bati entzun nion esaten, Cuencan hildako batek Frantzia bostek, Sobiet Batasunean hamarrek edo Txinan hogeik baino interes haundiagoa zuela. Eta, guzti horrek, egoera larrian dagoen zure etxe ondoko auzotarrenak baino gutxiago... Berrien hurbiltasunak -hori gertatu den eremu fiskioak- ikusle, ikus-entzule edo entzuleen artean aditasuna haunditu egiten du”.

(Luis Prado Kazetari eta Informazio-doktorea)

Gorka Knörr abeslaria Tarragonan jaio zen duela 41 urte, eta Donostian enpresa-tekniken ikasketak egin zituen. Bere bizitzan toki askotan lan egin du, esate baterako Eusko Jauriaritzako lehendakari-tzaren bozeramalea izan zen. Ondoren, Lagun Aroko zuzendaritza-taldekoa eta gaur egun enpresa berean erakunde eta nazioarteko sailaren burua. **Egunkaria**-ren Editorialeko partaidea eta EITBko Administrazio-Batzordekoa ere bada.

— Zuk zeuk kantatzeaz gain, idatzi ere idatzi izan duzu, ezta?

— Euskaraz idazten, gauri bateko Zeruko Argian hasi nintzen, 1971. urtean. Geroztik hainbat tokitan idatzi izan dut, Deian sartu nintzeanean euskarazko kazetari-taldean hasi nintzen. Kolaborazio asko bai, baina lan-lan, ez dut egin.

— **Gobernuan lanean ibili zinen; oroitzapen onak?**

— Era guztietakoak, onak eta txarrak. Oso lan neketsua izan zen; izan dudan lanik eskasena soldata aldetik, sartzen nituen ordu guztien-dako ez pentsa soldata handia nuenik. Baina oso aberasgarria komunikazio-munduarekin harreman asko izan nituelako. Gero, 1984. urtean bizi izan genuen krisia oso gogorra eta desatsegina izan zen. Beste alde negatibo bat ere badago nire ustez, politikariek gero eta gehiago pentsatzen dute beraiek bakarrik daudela gizartean eta beste politikariek esaten dutenari bakarrik begira bizi dira.

— Herri-prentsez Arrasaten izango diren Ihardunaldiak antolatzeako Batzordeburua zara, ezta?

Gorka Knörr

Komunikabideen munduan lanean



— Ez nuke esango ezer antolatu dudanik; Ihardunaldi hauek posible badira, Arrasate Pressek herri-mailan lortu duen oihartzunari esker da, AED inguruan lan egiten duten taldeei esker, eta hirugarren eta garrantzitsuena Arrasateko Udalak eraman duen politikari esker. Ihardunaldiak posible izan daitezen erakunde ezberdinek eman duten laguntza ere aipatuko nuke. Ni aukeratu baninduten Arrasaten Lagun-Aron lan egin eta Arrasate Press-ekin nola edo

hala harremanak izan ditudalako izan da.

— **Zer da zuretzat herri-prentsa?**

— Oso beharrezkotzat jotzen dut, batez ere euskarazko herri-prentsa; uste dut euskararen alde seriozki lan egin nahi badugu, prentsa lokalak baduela bere esparru berezia, alde askotatik begiratuta; esate baterako tokian tokiko hizkuntzaren berezitasunak lantzeko aukera ematen du.

— **Zu EITBko Kontseilukoa izan zara. Badute zer**

ikusirik bi mundu horiek, EITBk adibidez eta herri-prentsak?

— Pentsatu nahi nuke baietz. Nire iduriz badago Euskal Herrian kaleratu beharko genukeen beste eztabaida bat; kontuan hartu behar da Euskal Herria ez dela nazio normalizatua; horregatik uste dut neurri berezi batzuk hartu beharko lirakeela. Nolakoak? Ez dut uste EITB moduko estruktura handiak bakarrik behar direnik; uste dut mundu hori lotu egin behar dugula nola edo hala herritik bertatik datorren beste mugimendu horrekin, irrati libre eta prentsa lokalarenarekin alegia.

— **Araban herri-prentsarik badago?**

— Bada zerbait, baina oso gutxi; nik dakidanez Aiara eskualdean badago, gehiagorik ez; baina uste dut Gasteizek beharko lukeela horrelako zerbait. Arrasaten, Bergaran edo Beran egiten diren modukoak ez daude, behintzat.

— **Zein ondorio atera nahiko zenuke Ihardunaldi hauetatik?**


— Xederik nagusia, izan diren esperientzien berri ematea da, baina ez berriemate soila, baizik eta herri-prentsa sakon ezagutzea: zer teknologia erabiltzen den, zer zabalkunde izan duen... eta atera daitezela ondorio on edo praktikoak ere. Euskal Herrian beste zenbait herri edo eskualdetako jendeak nahi izanez gero hone-lako proiekturen bat egin, ezagut ditzatela nola egin ditzuten beste batzuek. Izan dezatela bidea hori aurrera eramateko, eta ez orain arte moduan, leku askotan boluntarismo hutsez egin bait da. Hauek izango lirake atera litezkeen ondorio nabarmenenak.

— **“Euskarazko herri-prentsa beharrezkoa ikusten dut”**

Hasi ongi urtea!

Inoiz baino errazagoa
orain Macintosh lortzea.

162.000 PTA*




Eraman ezazu etxera Macintosh Classic
(2 MB HD 40) bat eta ordaindu erraz
INTERESIK GABE.



68.040* PTA hasieran, eta gero
7.830* PTA hilean hamabi hilabetez.

**Atera kontuak eta ohartuko zara:
interes bakarra, zeurea!**



Apple banatzaile baimendua
AUTOEDIZIOAN espezializatua.

* Prezio hauei BEZa gehitu behar zaie.




GESCO INFORMATICA

Euskalduna, 4 BILBO

TFNOAK: 422 27 36 / 421 87 60



Jose Mari Rodriguez Otxoa, Garbiñe Egibar, Xabier Zubizarreta, Jose Mari Mujika, Gorka Knörr eta **Jon Emaldik** egin zuten irekitze ekitaldia. Ekitaldi horri, goizeko hamarrek aldera eman zitzaion hasiera eta ordurako Prentsa lokalari buruzko lehen Ihardunaldietan parte hartzekotan ziren gehienak bertan ziren.



Komunikabideen mundukoa izan edo ez izan, Ihardunaldietako partehartzaile guztiek interes handia erakutsi zuten autoedizioaz. **Xabier Zubizarreta**, Arrasateko Alkateak inauguraketa ekitaldian parte hartzeaz gain, adi-adi jarraitu zuen **Goio Aranaren** lana. Hori gutxi balitz, bertako eta kanpokoekin prentsari buruzko eritziak aldatzen egon zen. Bizi guztian prentsa-munduan ibilitakoa izan balitz bezala. ▶

**T X O S T E N
E M A I L E A K**

● **Aranguren, Asier**, 26, kazetari aretxabaletarrak «Prentsa lokalaren ezarpen eta zabalpena Euskal Herrian» txostena aurkeztu zuen. Kazetaritza Leioako Unibertsitatean ikasia, Estatu Batuetako Boston Universityn Telebista Zuzendaritzari buruzko masterra egin zuen. Euskal Telebistan «Kirolez Kirol 1»eko arduraduna eta CNN telebista amerikarrarentzat ETBk duen berrie-maila da. Arrasate Presseko erredakzio-kontseilukidea eta Arrasate Telebistako aholkulari teknikoa.

● **Aranzabal, Joxe**, 39, arrasatearrak «Herri-aldizkari baten tajuketaz» hitz egin zuen. Deustuko Unibertsitatean Historia Moderno eta Garaikidean lizentziatua, irakaskuntzan eman ditu hainbat urte. Prentsa mailan, *Garaia* aldizkarian egin zuen lan. *Arrasate Press* eta Arrasate Telebistako sortzaile-tarikoa eta lehen zuzendaria. Orain prentsaren diseinuan ari da bidea urratzen.


● **Elkoroberezibar, Miguel Angel**, 25, bergararrak «Prentsa lokalaren finantzabideak» aztertu zituen. Ingeles Filologian lizentziatua, irakaslea da Donostiako J. M. Usandizaga Institutuan. *Enseiucarrean* aldizkariko zuzendari izana, Bilbon. Gaur egun Bergarako *Berrigara* astekariko zuzendaria. Hainbat literatur lehiaketatan saritua. Idazlan asko argitaratu ditu Euskal Herriko hainbat komunikabidetan.

TXOSTEN EMAILEAK

● **Escribano, Matias**, 59, kazetari tuterarrak «Banaketaren arazoa prentsa loka-lean» gaia jorratu zuen bere txostenean. Madrilgo Kazetaritza Eskolan lizentziatua, Filosofia eta Letretako lizentziatura ere badauka. *Pueblo* egunkariko eta RNEko erredaktore izana urte luzetan, Logroñoko *La Rioja* egunkariko eta bertako RNEko zuzendari ohia. Nafarroako RNEko zuzendari izana. Hainbat egunkaritarako korrespontsari izana Erroman. Tuterako *La Ribera Navarra* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria da.

● **Irigoien, Jose Manuel**, 28, Etxalarkoak «Prentsa lokaleko enpresen egitura ezberdinak» mahainguruan hartu zuen parte, *Ttapi-Ttapa* aldizkariaren esperientzia azalduz. Bortzirietako inguruko *Ttapi-Ttapa* aldizkariako erredakzio-kontseilukidea, kazetari eta erredakzio-arduraduna. Kazetaritza ikasten Leioan

● **Maciá, Joan**, 55, kazetari katalanak «Prentsa lokal eta komarkalaren potentzialitateaz» ihardun zuen. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan lizentziatua eta Madrilgo Complutensenseko doktoregoa lortu zuen Informazio Zientzietan. Hainbat enpresatarako zuzendari eta kontseilari-delegatua, irakas-kuntzan ere lan egiten du. Complutensenseko adibidez, prentsa lokal eta komarkalari buruzko mintegia zuzentzen du. Informazio, publizitate eta irakas-kuntza munduko zenbait elkar-tereko kide.



◀ Aldizkari ugari zituen mahaia jarri zen hitzaldi-aretoaren aurrean. Bakoitzak berea ezagutzen du, baina besteena ezagutzeko grina ere izaten da; horregatik aldizkariaren mahaia inguruan jende ugari bildu zen. Erakusketa txiki horrek, gaur egun prentsa lokalaren inguruan dagoen jakinminari erantzun zion, neurri batean behintzat.



▲ Mahaian ezezik, hitzaldi-aretoan hormetan ere makina bat aldizkariaren azalak jarri ziren, jendeak ikuspegi zabal bat izan zezan. Askok izan ziren atsedendietan eta Ihardunaldie hasiera eman aurretik horiei begira egon zirenak.

Arrasate Pressen erabiltzen diren trasteak hartu, LK3-eraman eta eskuartearen duzun ale berezi hau prestatzeko, egun osoan lanean ibili zen **Goio Arana**. Berarekin batera **J. L. Agote** egon zen, egindako galderei beharrezko erantzunak emanez. Izan ere, goizeko saioa bukatu zenean, jende ugari hurbildu zen ordeganailuen ingurura, interes handiz gainera! ▶



**T X O S T E N
E M A I L E A K**



◀ **Joan Maciá**

kataluniarrak, prentsa lokalaren potentzialitateaz hitz egin zuen. Bere jarduna interesgarria bezain bizia izan zen. Galdera-erantzunen txanda iritsi zenean, eztabaidan parte hartu zutenak asko izan ziren. Horiatariko bat, **Matias Escribano** izan zen, Tuterako *La ribera Navarra*, aldizkariaren zuzendaria, hain zuzen ere.

● **Mendiguren, Iñaki**, 37, ezkiotarra. Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua, irakas-kuntzan ibilia, gaur egun itzulpen-lanetan ari da. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED), *Arrasate Press* eta ATBko sortzailetariko. Arrasate Presseko erredakzio-kontseilukide eta behin behineko zuzendaria.

● **Molet, Jordi**, 42, kazetari katalana. Vic, Olot eta Costa Brava irratietan egin zuen lan. Telebistan ere ari izan da. *La Vanguardia* eta *El Correo Cataleneko* berriemaile izana. 1983tik *El 9 Nou* aldizkaria zuzentzen du.

● **Olondo, Iñigo**, 27, bilbotarrak «Prentsa lokaleko enpresen egitura ezberdinak» jorratzen zituen mahainguruan hartu zuen parte, *Getxoberri* aldizkaria ordezkatzuz. Leioako Fakultatean Kazetaritzan lizentziatua, urtebetez ume-aldizkari bateko arduraduna. Gaur egun, Getxoko Udal Komunikabideetako (*Getxo Irratia* eta *Getxoberri* aldizkaria) erredaktore buru.

● **Prados, Luis**, 54, kazetari malagatarra Informazio-Zientzietan doktorea Madrilgo Unibertsitate Complutense delakoan. Ya egunkariko zuzendariorde eta *ABC* egunkariko erredaktore buru izandakoa. Goi mailako sariak irabazi ditu, informazio lokalari buruzko hainbat artikuluri esker. Madrilgo Prentsaren Elkarteko zuzendaritzako kide.

Bazkal orduan mahaikide ugari bildu zen Eskola

Politeknikoko jangelan.

Hasteko babarrunak saieskiekin eta ondoren legatza saltsa berdean; postrerako ijito-besoa eta bukatzeko kafea. Bazkaltzen hasi orduko ordubiak ondo jota ziren. Ondorioz ezin bazkaloste luzeegirik egin.

Hala ere, gustora.

Batzuk gustora bazkaltzeko, beste batzuk lan egin behar.

Bazkaria zerbitzatzen ibili ziren emakumeak, fin baino finago ibili ziren beraien lanean. Jendeak mahaiak utzi eta gero, beraiei egokitu zitzaizen bazkaltzea. Egia esan, ondo merezia zuten atsedenaldia. Hor dituzue sukaldeko mahai handiaren bueltan.



I. Ihardunaldiak

TXOSTEN EMAILEAK


● **Sirera, Toni**, 39, katalanak «Prensa lokalaren ezarpen eta zabalpena» aztertzen zuen mahainguruan hitz egin zuen. Azken hamar urteotan prentsa komarkalean sartuta, *Ressò de Sta Coloma de Famers* aldizkariko zuzendaria da eta Kataluniako Prentsa Komarkalaren Elkarteko idazkaria. Noizean behin aldizkari desberdinetan idatzi izan du.

● **Udina, Alfons**, 47, bartzelonarrak «Prensa lokaleko enpresen egitura ezberdinak» gaiaren inguruko mahainguruan hartu zuen parte, *La Fura* aldizkariaren aldetik. Tekniko publizitarioa, Komunikazio-teknikak eta Marketing-zuzendaritzan diplomaturia. 1982tik, Penedès lurraldeko *La Fura*, doaneko astekariko (22.000 ale astero) sortzaile, editore eta erredakzio-kontseilukidea. Publizitate-agentzia bateko zuzendari orokorra. Toki askotan hitz egin izan du.

● **Vallmajó, Jordi**, 42, Melillan jaiotako katalan honek «Kataluniako prentsa lokal eta komarkalaren Elkartea» txostena irakurri zuen. Kazetaria bizibidez, Figueresko Herri Irratian hasi zen lanean, Bartzelonako bi egunkaritako erredaktore izan eta gero, Gironako *El Punt Diari*-ren hastapenetan eta Figueresko *Hora Nova* egunkariaren sorreran parte hartu zuen. Gaur egun azken honetako zuzendaria dugu. Kataluniako Prentsa Komarkaleko Elkartearen sortzailetariko eta lehen-dakaria.


Ihardunaldiek oihartzun handia izan dute komunikabide askotan, bezperatan eta burutzen ari zirela ere bai. Ondorengo egunetan seguruen izango da zer entzun eta zer irakurririk.

Atzo goizean, ETBko *Erreportari* programa egiten dutenak, LK3-ra hurbildu ziren, erreportaia grabatzera, noski! Arratsaldean, berriz, *Egonean giro* programakoak ere, grabatzen izan ziren. Beraz, argi dago, Ihardunaldi hauei buruz berri ugari izango ditugula ▶



◀ **Jose Felix Diaz de Tuesta**, antolatzaile nagusiak, makina bat jende agurtu behar izan zuen eta ahal zuen guztiari erantzuten saiatu. Hor duzue, **Koro Astigarraga** ETBko Erreportari programako kazetariari azalpenak ematen.

ETBkoak lanean ibili baziren, ▶
Ihardunaldiak Arrasaten direnez, ATBk ezin zuen hutsik egin. Goizean kamaralariak gertatzen zenaren irudiak hartzen ibili ziren. Arratsaldean, berriz, **Jon Andueza** agertu zen eta beste eginbehar batzuen artean, **Joan Maciá**, elkarrizketatu zuen. Ah! entzundakoaren arabera, Joan Maciáren hitzaldia, atzoko interesgarriena.



Esperientzia luzeko kazetaria, oso oroimen onak gordetzen ditu Erroman korrespondentsari izandako urte haietaz. Aldo Moro, Henry Kissinger eta Montini kardenala, geroago Paulo VI aita santua izango zena, elkarrizketatu zituen. Baina informazioaren munduko profesional gisa bere jaioterrira itzuli zenetik ari da gozatzen, berak sortutako *La Ribera Navarra* zuzentzen.

— Nola iritsi zinen prentsa lokalera?

— Errebotezia. Nazional mailan lana egin nuen hasierako *El Alcazar*, *Pueblo* eta *RNE*n, baita eskualde mailan, Errioxan. Halako batean, hainbat gai zegoela konturatu nintzen, maila horietan agertu ere ez zirenak egiten. Orduan herri mailako prentsa guztiz beharrezkoa zela pentsatu eta *La Ribera Navarra* sortu nuen.

— Nola azalduko zeniguke *La Ribera Navarrak* izan duen arrakasta?

— Mundu mailako albisteetaz gain, jendeari bere inguruko gertakarien berri izatea gustatzen zaiolako. Nor hil den, nork izan duen arrakasta... Eskaintzen dugun publizitatea ere, beste era bateko informazioa da guretzat.

— Zure aldizkaria egiteko orduan izan al zenuen eredu-rik?

— Ez. Guk beste zerbait egin genuen. Batetik, beste inon agertzen ez zen mundua (auzo-batzordeak, peñak, elkarteak, eskolak...) landu eta bestetik, Erriberarako oso garrantzitsuak diren zenbait proiektu (Unibertsitatea, industrializazioa...) bultzatu.

— Zeintzuk dira prentsa lokalak gaur egun dituen ar-

Matias Escribano

Herri prentsaren oraina eta geroa



zorik handienak?

— Handiena banaketaren arazoa da. Aldizkari bat postaz bidaltzearen 18 PTA ordaindu behar izatea eskandalu hutsa da. Gizarte txikietan, bestalde, askoz sentiberagoagoak gara kritiken aurrean.

— Herri-prentsak badu abantailarik publizitatea ordaindu behar duenarentzat?

— Abantaila guztiak. Coca-Colak akaso ez, baina iragarle txikiak ez dute herri-prentsan iragartzea beste irtenbiderik. Prentsa handia

garestiegia da. Balizko erosleak, bestalde, bertan bizi direnak dira. Eta herri-prentsaren tarifak askoz ere merkeagoak dira. 60.000 pezetarekin oso kanpaina handia egin lezakete gure aldizkarian.

— Maiztasuna inportantea da prentsa lokalean?

— Oso. Irakurleak jakin egin behar du asteazkenero edo ostiralero aldizkaria esku artean izango duela. Horrekin batera, aldizkaria etxean jasotzea, bezeroaren izena eta abizenarekin, oso kontuan

hartzekoa da.

— Ikusten diozu etorkizunik herri-prentsari?

— Geroa eta oraina, dena du herri-prentsak. Estatu Batuetan nazio mailako lau egunkari baino ez daude. New Yorken, berriz, 104. Tuteran ere lau aldizkari daude, lau. Profesionaltasuna, seriotasun informatiboa eta kalitate teknikoa eskainiz gero, ez dut uste porrot egin lezakeenik herri-prentsak.

— Irabaz liteke dirurik prentsa lokalean lan eginez gero?

— Prentsa lokalak errentagarria izan behar da edo ez da izango. Ez nago dirulaguntza ofizialen kontra, baina prentsa lokalak gai izan behar da bere kabuz aurrera egiteko. Dirua irabaztea ere posible da.

— Zer eritzi duzu herri mailako multimediaz?

— Irrati eta telebista lokalak sekulako etorkizuna dutela. *Tele Ribera* izeneko telebistaren proiektua egin dazkate, baina, kablez joango litzatekeenez, oraingoz ezin da egin, garestiegia da eta.

— Doaneko prentsa moda iragankorra al da?

— Gure aldizkariak 7.200 ale banatzen ditu eta 3.000 pertsona daude zain, zerrendetan sartzeko. Kontua ez da doanekoa izatea ala ez, produktu ona ala txarra egitea baizik. Egun berean banatzea posible izango balitz, doaneko egunkariak ere errealitate izango lirateke.

— Zein aholku emango zenieke prentsa lokalean hasteko direnei?

— Lan egin behar duten merkatua, eskualdea alegia, ondo ezagutzea. Gauzak serio planteiatzea eta diru-sarrerak eta gastuak ondo erabiltzea. Horrela egin daiteke herri-aldizkaria eta baita dirua irabazi ere.

— **“Profesional moduan gus-
tokoan nire herrian nabil”**



La Fura: Kataluniako kasu berezia

Laster hamar urte izango dira Kataluniako Goi Penedes lurraldean La Fura herri-aldizkaria lehenengo aldiz plazaratu zela. Orduan hamabi orrialdeko 11.000 mila ale banatu zituzten. Gaur egun, berriz, astero 68 orrialdeko 22.000 ale, batzazbeste.

Hasierak

Hasierako *La Fura* hura Vilafranca del Penedès, Goi Penedès lurraldean dagoen herrian banatu zen soilik, baina berehala Behe Penedèsen ere hasi zen banatzen. Bartzelona eta Tarragona ondoan dagoen lurralde hau bere ardo apartsuek egiten dute ospetsu. Codorniu bezalako edariak bertan egiten dira. Industria gehiegirik ez dago, baina bai merkataritza aberatsa. Denetara ez dira 60.000 bizilagunetara iritsiko. Herririk handienak Vilafranca del Penedès (26.000 bizilagun), Vendrell (13.000) eta S. Sadurni de Noia (10.000) dira.

Katalanera populazioaren %90ek inguru ezagutzen duen lurralde honek beste era bateko prentsa idatzia behar zuela okurritu zitzaizen Alfons Udina eta Felix Simon,

haren koinatuari. "Hurbileko informazioa zabalduko zuen doaneko aldizkari alternatiboa", euren hitzetan. Beste negozio batzuk zituen famili enpresaren beste adar

bat izango zen, beraz, *La Fura*.

Antolaketa

Gaiak eta aldizkariaren

norabidea, sei pertsonaz osatutako Erredakzio-kontseiluak erabakitzen ditu. Kazetaritza-lanak, bestalde, SI-DEP (Servei d'Informació, Documentació i Estudis del Penedès) kultur taldeak egiten ditu, enpresa editorarekin duen hitzarmenari esker. Lau lagun ari dira informazio hori lantzen. Kirol-erredaktorea egun erdiz, eta gainerakoak egun osoz. Eurek betetzen dute aldizkariaren informaziorik gehiena, kolaboratzaile gutxi dituzte eta.

Edukia


Portada asteroko dossierrari -zazpi edo zortzi orrialdekoa- lotuta egoten da. Lurraldeko albisteek ere leku inportantea dute, era laburrean. Gazteek berentzat den saila dute, baina aipatzekoa da telebistari eskaintzen dioten garrantzia. Zazpi orrialde, astearen egun bakoitzeko bat, Penedèsen hartzen diren zazpi telebisten programazioak emateko. Horiekin batera, santoralak, efemerideak, telebistari



Kobratu ez arren, okinek gustora banatzen dute *La Fura*

buruzko gomendioak, te-
lezinema, eskualdeko agen-
da, etab. luzea. Marina Co-
rredor kazetariak dioskunez,
“*orririk irakurrienak dira
hauek*”. Hala ere, zinea,
gastronomia, denborapasak,
nekazarien mundua eta kiro-
lak, besteak beste, astero
agertzen dira. Kazetariaren lan
guztia katalanez idatzita
dago, publizitate gehiena
bezala. “*Iragarle batek bere
anuntzioa gaztelaniaz jartzea
eskatzten badigu -dio Mari-
nak- orduan gaztelaniaz jar-
tzen dugu. Badakizu, ordain-
tzen duenak agintzen du.
Gehienetan, halabaina, ez da
hori gertatzen*”.

Posible den neurrian, *La
Fura* aldizkari alternatiboa
izatea nahi dute, Kataluniako
hizkuntza eta kultura, ekolo-
gia, eta beste horrelako gaiak
garrantzi berezia emanez.
“*Gure independentzia ez
dugu saltzeko. Astero-aste-
ro, hirugarren orrialdean
editoriala idazten dugu.
Hortxe agertzen dira gure
eritziak. Baliteke noiz edo
noiz bateren bat haserretzea,
baina orain artean behintzat
ez dugu arazorik izan*”.



162 okindegitan partitzen da *La Fura*, ostiralero

Finantzabideak

Publizitateak aldizkariaren %50a betetzen du. Eta horixe da, hain zuzen, *La Fura*ren diru-iturri bakarra. Publizitate guztia Vilafrancako Nexos I&S agentziaren bidez eskuratzen dute. Alfons Udinak uste duenez, publizitatea agentzia baten es-

kuetan uzteak aldizkariaren independentzia bermatzen du.

Bertakoa izan arren, Codomiuk ia inoiz ez du iragarrik jartzen. Hark baditu bere zirkuituak. Eskualdeko merkataria, aldiz, akademiak eta kontzesionariekin batera, sarri askotan agertzen dira. Publizitate orri osoak balio



dituen 56.000 PTak merke ateratzen zaie.

La Fura egiteko ez da autoedizioa erabiltzen. Ordenadoreak bai, ordea. Kazetariak *Word Perfect* programa erabiliz idazten dute. Maketazioa fotokonposizioan egiten da. Gaur egun *La Fura* Penedèseko 41 udalerrian zabaltzen da. Astero 22.000 ale. Hogeitabi mila familiatan. Horregaitio, ez du zentimorik ere jasotzen dirulaguntzatan, dohainik delako. “*Hori dela eta, dio Alfons Udinak, ezingo dugu berrikuntza tekniko edo estetiko askorik sartu, baina gure irakurleek itxurak baino edukiak nahiago dituzten neurrian, ez gara galduko*”.

Eguneroko ogiarekin batera

1982an atera zituzten lehen zenbakiak etxeetako postontzietan banatzen zituzten, baina aste batzuk pasata, Penedès eskualdeko ogi-dendetan -162 okindegitan, zehazkiago- hasi ziren partitzen. Ostiral eta larunbatetan, eguneroko ogiarekin batera, *La Fura* har dezakete erosleek, dohainik.

Ogi-saltzaileek ez dute ezer kobratzen. Aldizkariak duen arrakasta ikusita, halabaina, ez dute *La Fura* barik geratu gura, badakite eta, eduki ezean, irakurle-erosleak beste denda batera joango direla jasotzera. Hori dela eta, dei bat baino gehiago jaso izan dute okinen aldetik, protesta bizian, “*beste hari niri baino ale gehiago ematen diozuelako*”.

“*Guretzat familia guztietara heltzeko modu ezin hobea da, diosku Marina Corredor-ek, eta dugun arrakastagatik edo, merkatu honetan sartu nahi duten aldizkari berriek ere gure banaketa-sistema kopiatzen dute*”.

Arazoak arazo eta oztopoak oztopo, penedestarrei eguneroko ogia bezain beharrezko bihurtu zaie *La Fura*.

IZGOGRAF


DISEINUAK
KATALOGOAK
ALDIZKARIAK
FORMULARIAK

IZGOGRAF

GOJAINGO INDUSTRIALDEA
LEGUTIANO - ARABA

Tfno.: 45 51 29

Fax: 45 54 59



Joan Maciá izatez Sabadell-ekoa da, baina gaur egun Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Kazetaritza Fakultatean eskola ematen du.

“Herrialde-mailako komunikazioa, Espainiako informazio-egituran” izenburuko tesia egin zuen. Prentsa Lokalari buruzko lehen lhardunaldietan “Prentsa lokala eta komarkalaren potentzialitatea” izenburua daraman hitzaldia eman zuen.

— Zergatik azken urteetan, herrialde eta herri-prentsa mailan eman den hazkundera?

— Gaur egun bizi dugun gizarte hau, pertsonen anonimatu eta gertaeren dimentsio mundialean oinarrituta dago. Gizarte horren barruan, erantzun gisa, gertaera pribatu eta herri mailakoei garrantzia ematen ari zaie.

Prentsa munduan ere, gauza bera gertatu da. Autonomi Estatutuen ondorioz, politika eta administrazio mailan deszentralizazio handia etorri da, herrialde eta herri-mailako prentsari mesede eginez.


— Beraz, Elkarte Autonomiko bakoitzak bere ezaugarriak dituen moduan, bertako prentsak ere izango ditu?

— Bai, noski. Herrialde bakoitzak, historia, ohitura eta ezaugarri jakin batzuk dauzka, beste batzuekin zer ikusirik ez dutenak. Hizkuntzak ere garrantzi handia dauka, hizkuntza ofizialaz gain, bere hizkuntza duten herrialdeetan elkartasunerako bidea bait da. Alde horretatik, hizkuntzak berak, herrialde edo herriaren nortasuna eta ezaugarriak indartzen ditu, baita mugak jarri ere ezagutzen ez dutenei.

Bestalde, aipatu beharra

Joan Maciá

Prentsa lokala sakonetik aztertzen



dago herri eta herrialde mailako prentsak eragin handia duela herrialdean bertan, ideologia, publizitate edo eta eritzi bat zabal dezakeelako.

— Eta, herri edo herrialde mailako prentsak badu zereginik egunkari eta aldizkari handien aurrean?

— Herri mailako prentsaren bultzatzaileek, badakite zabaltasun eta oihartzun handiagoa duten medioekin batera bizi behar dutela. Bi gauza zeharo desberdinak dira. Herri mailako berriak herrian bertan du indarra eta interesa; gainera gehienetan,

prentsa handiak ez du jasotzen. Beraz, ez dago lehiarik, bata bestearen osagarri da.

Bestalde, herri mailako prentsak badu abantailarik egunkari normalen aurrean. Herrialde edo herri mailako informazio-enpresa bat sortzeko, ez da dirutza ikaragarri behar, arriskua txikiagoa da eta merkatua ezagutzeko aukera handia dago. Banaketak normalean diru asko jaten dio egunkari normalari, baina herri mailako argitalpenek honetan ere, abantaila handia dute. 1988. urteko datuek erakusten dute,

— “

Prentsa lokala eta hedapen handikoa osagarriak dira”

orduko herrialde edo herri mailako enpresarik handienak 46 milioiko aurrekontua zuela eta gehienak ez zirela 20 milioira iristen.

Azkenik, ezin da ahaztu publizitatearen eragina. Inguru jakin batean, ia informazioaren monopolioa baten esku dagoenean, publizitatea erakartzea oso erraza izaten da. Gaur egun, publizitatea egiten dutenei hobeto erantzuten dieten tresnak honelako argitalpenak dira, kontsumitzailearengana iristen direlako. Abantaila horietaz gain, alderdi psikologikoa ere aipagarria da.

— Alderdi psikologikoa?

— Normalean, herri edo herrialde mailan lanean ari direnak enpresaren jabe edo enpresarekin zer ikusi zuzena dutenak izaten dira, era batera edo bestera. Norberaren gauza den toki batean lan egiteak izugarriko poza ematen du. Gainera, kontuan hartzekoa da, normalean honelako tokietan lanean ari direnak gero hantxe bertan bizi direla, bertako bizitzan parte hartuz.

— Prentsa lokalaren hazkundera itzuliz, zergatik, batez ere, toki aberatsenetan?

— Prentsa lokalaren hazkundeak ez du zer ikusirik demografia edo industrializazioarekin; bai, ordea, biztanlegoaren giza eta kultur-mailaren aberastasunarekin.

— Zein etorkizun iragaritzen diozu herri mailako prentsari?

— Oso ona. Azken hamalau urteetan, prentsa lokalaren zabalkundearen ikaragarriko gorakada izan da, jendeari gertuko berria ezagutzeko interesatzen zaiolako eta publizitateak ere, oso garbi ikusi duelako mundu horretan sartu beharra duela aurrera egiteko.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Euskal Prentsaren Alde



Gipuzkoako Foru Aldundia



PRENTSA LOKALAREN ORDUA



Espainiako trantsizioak —eta honen barnean, agente lokalen pultso politikoak— hurbileneko gertakariei buruzko informazioari lehentasuna eman eta indartzeko balio izan du.

XX. mendeko azken hamarkada honetan prentsa lokalak distiraldia bizi du, ohizko kazetaritzan ere beti adierazia, baina aurrerapen teknologikoek eta gure garaiotako errealitateak benetan bultzatu dutena.

Bizimodu lokalarekiko ardura gehitzen ari bada, ulergarria da berorren zabalduerako ahotsak ere izatea. Egunkariak areagotu egiten dute kokaturik daudeneko hiriarekiko arreta. Irrati eta telebistak ere espazioak biderkatzen ari dira. Herritarrek hurbil-hurbiletik ikusten duten gizarte- eta herri-bizitzan espezializaturiko aldizkariak sendotzen ari dira. Honela gertatzen da Europa osoan eta EE.BB.etan, non komunikazioen munduak oso bizkor egiten duen aurrera. Hori da eskatzen dena. Momentu honetako eskakizun profesionala da.

LUIS PRADOS DE LA PLAZA
INFORMAZIO-ZIENTZIATAN
DOKTOREA

ORAIN LANERA



Trinkoa zen egitaraua, eta mardula izan da egin dugun lana. Txosten eta mahainguruez aparte, etenaldiak ere elkarriketarako erabili ditugu, elkarren berri jakiteko eta elkarren arteko loturak sendotzeko.

Ondo jabetu gara egunotan herri-prentsaren garrantziaz. Badakigu orain informazio lokalak giza banakoaren kidetasun-gune hurbilenak indartzean komunikabide handien eragina orekatu egiten duela. Jakin dugu herri-prentsaren azpiegitura teknologikoa edonoren eskuera egoteak informazioaren oligopolioa apurtu egiten duela, herritarren mesedetan. Berretsi dugu herri-prentsak hizkuntza zokoratuen normalizazioan izan dezakeen eragina, informazio erakargarri eta arinak ez dakienarengan jakinmina eta irakurtzen ez duenarengan leitzeko asmoa sor ditzakeen neurrian.

Esan eta entzun ditugu esan eta entzun beharrekoak. Pilak kargatu ditugu. Orain, indarberriturik, lanera.

MIKEL IRIZAR
ARRASASTE
KOMUNIKABIDEAK
ELKARTEKO LEHENDAKARIA

OREKA ZAILA



Kazetaritza lokalak egitea iharduera nahiko zaila da beste kazetaritza-mota batzuen aldean. Eta ez dut esan nahi informatu edo iritziak ematearen aldetik bakarrik, baita kazetel enpresaren ezarpen eta gestioaren aldetik ere. Hiri txiki batean denok ezagutzen dugu elkar.

Esperientziak erakusten duenez, gertakari “istilutsu”ei buruzko informazioak —eta are gehiago, zenbait iritzik— gertakari horien protagonisten erreakzioa sorterazen du. Izan ere, hau edo hori idatzi izan duelako, nork ez du noizbait errieta- ren bat jasan behar izan Kale Nagusiaren eta Udaletxeko Plazaren arteko izkinan?

Halaber, esperientziak erakusten digu, gutxi direla aldizkari lokal bat martxan jartzeko kapitala arriskatzeko dutenak, eta askok dakite zein neketsua den negozio baten iragarkia lortzea, negozio horren jabea, aldizkarian eztabaidatua izan den zinegotzi baten laguna denean.

Azken finean, gizarte lokalak eskatzen digun orekari eustea da kontua, prentsa profesional eta askearen duintasunari uko egin gabe.

JORDI VALLMAJÓ
ESKUALDE-PRENTSAREN
ELKARTE KATALANAREN
BURUA

PRENTSA LOKALA: fenomeno indartsua




Eskualdeko prentsa edota prentsa lokalaren fenomeno, izatez, ez da berria. Halere eta euskal prentsaren ikuspegitik, azken hamarkada honetan eta batez ere azken urteotan, sekulako aurrepausa azagutu duela baieztatu dezakegu; alde batetik publikazio berriak han-hemenka etengabe agertzen ari direlako eta bestetik, kopuru absolutotetan hartuta eta euskarazko medioak izaiteko, inoiz ezagutu ez den ezarpena eta irakurle gaitortu dutelako gaur egun.

Ia-ia kasu gehienetan, gainera, antzerako joera eta modu batzuren arabera gauzatzen ari direla dirudi; dagoenekoak, teknologi aurreratuaz hornituak, kopuruek ondorioztaten dutenez ez marginalak, publizitate eta erakunde publikoez finantziatuak...

Horiatariko bat Ttipi-Ttapa hamabostekariaren kasua dugu. Urte bat t'erdiz 1.400 aletik 4.600era igo eta bere hedapen eredia, Nafarroaren iparraldean dauden Baztan, Bertizarana, Bortzi-riak, Leitzaldea, Malerreka eta Lapurdiko Sarakoa da.

JOXEMANUEL IRIGOIEN
T tipi-Ttapa
ALDIZKARIKO ERREDAKZIO-
ARDURADUNA

**AIXE-BOLARI**

Ana Urkiza
Arana'tar Sabin 12-5
Ondarroa
Tfnoa: 683 24 54

AKATZ

Bego Perez
162 Posta kutxa
Bermeo
Tfnoa: 688 08 75

ALDABA

Vicente del Palacio
120 Posta kutxa
Gernika
Tfnoa: 625 59 01

ARETXAGAZETA

Inma Migel
Santa Kurtz, 21
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 01 05

ARIZ-ONDO

Errotalde Jauregia
Bergara

ARRAJA

Hazpame

ARRANONDO

Agustin Zubikarai
Arana'tar Sabin, 4
Ondarroa
Tfnoa: 683 02 87

ARRASATE PRESS

Iñaki Mendiguren
Azoka, 1
Arrasate
Tfnoa: 77 05 65

ASTIGARRAGA

Astigar Elkarte
Mirasol Etxea behe
Tfnoa: Astigarraga

AZPEITIAN ZER?

Kultur Batzordea
Enparantza Nagusia
Azpeitia
Tfnoa: 81 54 58

BERRIGARA

M. Angel Elkorobereziar
Errotalde Jauregia
Bergara
Tfnoa: 76 03 97

BERRIZ BERRI

Leioa

BIDASAKO**IKAZKUNTZEN****ALDIZKARIA**

Martin Izagirre
Kale Nagusia, 24
Irun
Tfnoa: 62 63 79

BILBAO

Guillermo Fernandez
Ayto. Plaza E. Erkoreka
Bilbo
Tfnoa: 446 60 16

BIL

Hendaia

BILDUMA

J.C. Jimenez de Aber
Errenteria
Tfnoa: 52 53 63

BILGUA

Mikel Aoiz
Otsari

BIM

Udaletxeko Inf. Bul.
Pza Consistorial s/n
Iruñea
Tfnoa: 10 01 50

BITERI BERRI

Ezpeleta

BOST

Eskolarteko Zuzenda.
Udaletxea, Eusk. Zerb.
Andoain
Tfnoa: 59 05 51

CELEDON

Ines Sancho Garcia
Castilla, 42-1C
Gasteiz
13 24 10

CICERONA RIOJANO

Pedro Vega
Santo Domingo, 5-A
Arnedo

DEBA

Elisabet Mas
Ostolaza, 12
Deba
Tfnoa: 60 11 72

DEIADAR

Foruen Plaza z/g
Gernika

DIARIO**METROPOLITANO**

J. Ramon Blasco
Ercilla, 42, 44
Bilbo
Tfnoa: 442 43 94

DONOSTIA

Donostia

DROGETENITURRI

Iñaki Arregi
Santa Ana, 12
Ermua
Tfnoa: 17 05 78

DURANGO SWING

Ina Azkune
296 Postakutxa
Durango

EL ANUNCIO VASCO

Eduardo Barco
Paseo de Colón, 3
Irun

EL TUTO

Rafael Aristu
Agoitz
Tfnoa: 24 82 97

ENE BADA

Tere Madinabeitia
Aizkorri kalea, behe
Legazpi
Tfnoa: 73 08 00

EPERBIDE

Atarrabiako Etorb. 27-2.
Antsoain
Tfnoa: 13 22 22

ETA KITTO

Arnando Muniozguren
Udaletxea, Euskara Zerb.
Eibar
Tfnoa: 11 68 45

GALTAUNDI

Asuri Aierbe
Plaza Berria 1, behe
Tolosa
Tfnoa: 67 56 07

GETXOBERRI

Javier Garcia
Udaletxea
Getxo
Tfnoa: 460 58 23

GOIERRITARRA

Jon Mikel Arano
Dorre-Etxea behe
Ordizia
Tfnoa: 88 96 12

GOZAZ

Turismo Bulegoa
Nafarroa Kalea z/g
Zarautz
Tfnoa: 83 09 90

GURE HERRIA

Senpere

HEMENDIK

Oargi Kultur E.
San Martin Auzoa
Alaun

HERRIA

Emile Larre
Jacques Lafitte Karrika
Baiona
Tfnoa: 59 25 62 85

HERRITARRAK

Urruñu

HERRIZ HERRI

Donib. Garazi

HONDARRIBIA

Udal Euskara kont.
Udaletxea
Hondarribia
Tfnoa: 64 43 00

IRINMODO

Iñigo Ramirez
Ibarrondo Auzoa
Antzuola
Tfnoa: 76 60 61

J.SAINT PALAIS

Donapaleu

KAIXO

Pello Akizu
Iparragirre, 40-2B
Urretxu
Tfnoa: 72 41 70

KALEA GASTEIZ

Postas Kalea, 18-3 dpt 4
Gasteiz

KANTILAPE

Kultur Taldea
Udaletxea, K. Nagusia
Itsasondo

KARKARA

Iñaki Iturain
Herriko Plaza, 1
Orio
Tfnoa: 83 00 28

KITZIK

Donibane Lohitzune

KONTZEJUPETIK

Euskara Zerbitzua
Foru Enparantza, 1
Onati
Tfnoa: 78 04 11

KULTUR GASTEIZ

Udaletxea
Villa Suso Jauregia
Gasteiz
Tfnoa: 16 12 72

LAISTERKAN

Kale Nagusia
Arbizu
Tfnoa: 46 06 35

LA VOZ DE LA**RIBERA**

Sixto Iragi
Muro 8, Gaztanbide 19
Tudela
Tfnoa: 82 15 08

LAZKAO

Luis M. Aldanondo
San Benito Ikastola
Lazkao
Tfnoa: 88 08 00

LEKEITIKO**UDALETIKO**

Gamarra, 1
Lekeitio
Tfnoa: 684 00 01

MAILPOE

Euskara Batzordea
Udaletxea
Arribe
Tfnoa: 50 42 07

MIROIR DE LA**SOULE**

Maule

NONTZEBERRI

Torrebiela K. E
Beko kale, 5
Mungia

NUESTROS PUEBLOS

Pedro Uriz
Recoletas, 12
Tafalla
Tfnoa: 70 34 16

OARSO

Erredakzio Komitea
Artxibo Muzizipala
Errenteria
Tfnoa: 52 53 63

ORRIA

Xabier Jauregi
Eusk. Zerb. Goiko Plza
Andoain
Tfnoa: 59 05 51

PLAZARA

Jorge Gimenez
Udaletxea
Irun
Tfnoa: 62 55 00

AYTO PORTUGALETE

Gaizka Sola
Plaza del Solar s/n
Portugalete
Tfnoa: 496 47 61

RIBERA NAVARRA

Matias Escribano
Capuchinos, 9 entr.
Tudela
Tfnoa: 82 38 50

RIBERA TUDELANA

Tudela

SEGUNDA MANO

Mario Rochet
Avda Universidades, 3
Bilbo

TTIPI-TTAPA

Joxemanuel Irigoin
Herriko Plaza, 1
Bera
Tfnoa: 63 11 88

TXITXILIBAKIO

Ubiarte, 4 behe
Elgoibar
Tfnoa: 74 16 26

ZARAOSB

Plaza Eduardo Respald, 4
Respaldiza

ZARAUTZ


Nafarroa, 22
Zarautz
Tfnoa: 83 59 50

ZE BARRI?

M. Carmen Abasolo
Aranburuzabala, 40
Eskoriatza
Tfnoa: 79 64 76

ZER IRAKURRI?

Elixabete Alberdi
Eusk. Zerb. Goiko Plza
Andoain
Tfnoa: 59 05 51



HEMENDIK, INPRESIORIK EDERRENA

Establezimendu honen berezitasuna delako, papertegi, liburuxka eta aritalpen guztiak inprimatzea ... Erakunde, elkarte, enpresa, profesional eta edozein saltegiarentzat.

Oso ezaugarri bereziekin bere funtzionamenduan, hots: egun gutxitako inprimaketak, beharrianen araberako salneurri egokiak eta offset kalitatearen bermarekin.

Fasprint, eskeintza hurbila eta eroso, erantzun berriekin zure papertegia inprimatzeko.



fas

Inprimaketa denda

ARRASATE

Arrasate Pasalekua, 2

Telf: 77 06 11 - Fax: 77 09 86



GERTU

INPRIMATEGIA

Zubillaga Industrialdea, 9 OÑATI Tfnoa: 78 33 09



Badugu zeresanik aldizkarigintzan

